

Irailaren 21eko 2/2018 ituna, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako, zeinaren bidez ezartzen den

BEGOÑAKO ANDRA MARI IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAKO HAUR-HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUETAKO IOBP-KO IKASLEEN MUGIKORTASUN-PROGRAMEI BURUZKO ARAUDIA

Arrazoien aurkezpena

Internalizazioa eta talde kulturantzun eta eleaniztunetan integratzea gakoak dira etorkizuneko profesionalentzat. Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako (aurrerantzean, BAM) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako graduetakoa IOBPko ikasleek eskaintza zabala dute mugikortasun-programetan. Horrek aukera eskaintzen die haien gaitasun sozialak garatzeko, trebetasun komunikatiboak hobetzeko atzerriko hizkuntza batean, eta orobat, kulturarteko kompetentzian sakontzeko. Horrez gain, elementu oso positiboa eta bereizgarria da ikaslearen curriculum akademikoan.

Ikasleen mugikortasun-programetan parte hartzeak berezko araudia eskatzen du, dagozkion baldintzak eta prozedurak jaso eta arautuko dituen.

Ondorioz, aginduzko izapideak eginda, BAMeko zuzendariaren ekimenez,

HONAKOA XEDATZEN DA

1. artikulua Mugikortasun-programen oinarrizko ezaugarriak

1. Programak soilik daude irekita baldintzak betetzen dituzten BAMeko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetakoa 4. mailako IOBP ikasleentzat.
2. Hartzaileek seihileko bat estatuko edo atzerriko unibertsitate batean egitea eska dezakete, BAMek ikasle-trukerako hitzarmena badauka izenpetuta delako unibertsitatearekin.
3. Ikasle-trukerako itunen ondorioz, beste unibertsitate batean egindako ikasketak errekonozitu egingo dira BAMeko gradu baliokideko ikasketetan, eta horrela jasoko da ikasketak amaitzean egiten den titularen gehigarri europarrean.
4. Ikasleak BAMen jarraitzen dute matrikulatuta beste unibertsitate batean dauden denboran.
5. Trukea soilik egin daiteke laugarren ikasturteko lehen seihilekoan, eta ez da egongo seihileko epe hori luzatzeko aukerarik.
6. Truke-egonaldiak dirauen artean, ikasleak BAMeko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduako IOBPko ikasketa-planeko laugarren ikasturteari dagozkion 18 ECTS

kredituak egin beharko ditu, gutxienez, aurreikusitako konpetentziak bereganatzen dituela bermatuz.

7. Eskaintza akademikoa ECTS kredituetan neurtzen ez den unibertsitateen kasuan (adibidez, unibertsitate amerikarretan), hango ikasle baten ikastordu kopuru estandarra eskatuko da.
8. Mugikortasun-programetan parte hartzeko prozedura aurreko ikasturteko azaroan hasten da.
9. Mugikortasun-programen kudeaketan bi unibertsitatek hartzen dute parte, zein bere eskumenekin.
 - ✓ BAM4eko mugikortasun-programen koordinatzailearen zeregina da:
 - Mugikortasun-plazak proposatu eta onartzea.
 - Hautagaiak aukeratzea, Batzorde Akademikoko kideekin batera.
 - Dauden plazei buruzko argibideak eskaintzea, arlo akademikoari dagokionez.
 - Oniritzia ematea harrera-unibertsitatean egingo diren ikasketak jasotzen dituen hitzarmen ekonomikoari.
 - Ikaslearen matrikula berrestea
 - Aholkuak eskaintzea BAMEko idazkari akademikoari aitortzetan eta aktak tramitatzean.
 - ✓ Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetarako bulegoak tramitatuko ditu eskaerak, diru-laguntza, aseguruak, hizkuntza-probak, hitzarmenak eta ikaslearen egonaldiaren lotutako auzi administratibo guztiak.

2. artikulua Eskaera egiteko baldintzak

1. BAMEko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduak IOBPko ikasle ofiziala izatea.
2. Harrera-unibertsitateara joan aurretik gaindituta izatea lehen hiru ikasturteei dagokien ondoko kreditu-kopurua: 196 ECTS kreditu, Hizkuntzen Sarrera Goiztiarra aipameneko ikaslearen kasuan; 202 ECTS kreditu, Artea eta Hezkuntza aipamenaren kasuan.
3. Eskaera epe barruan egiten denerako, gaindituta izatea lehen eta bigarren ikasturteari dagozkien 136 ECTS kredituak.
4. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailan gainditu gabeko ikasgaien ezohiko deialdietara aurkeztea, egonaldia hasi aurreko ikasturtean, eta egonaldiak dirauen bitartean, beharrezkoa balitz.
5. Hizkuntza-maila aurreratua (C1) egiaztatzea harrera-unibertsitatean aukeratutako ikasgaiak ematen diren hizkuntzan. Maila horri dagokion egiaztagiririk izan ezean, ikaslea helburu horrekin ezarritako barneko hizkuntza-probak egin beharko ditu.
6. Aurretiko eskaera, eskaera, hizkuntza-proba eta eskatzen zaizkion bestelako agiriak epe barruan aurkeztea.

7. Mugikortasun-programari buruz indarrean dauden arau eta prozedurak onartzea; horretarako, araudi honetako 1. ERANSKINEan jasotzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

3. artikulua Plazak esleitzeko irizpideak

1. Plazak ondoko irizpideen arabera esleituko dira.
 - ✓ Ikasketa-espeditentea. Ikasketa-espeditentean, gutxienez, 7,00ko kalifikazioa izan beharko da.
 - ✓ Hizkuntza ezagutzea.
 - ✓ Motibazioa eta heldutasuna.
2. Salbuespenezko kasuak banan-banan aztertuko dira, aintzat hartuta norako eskaera egin den eta zenbat plaza dauden eskuragarri.

4. artikulua Plaza esleitzea eta onartzea

1. Plazen esleipena martxoko lehen hamabostaldian egingo da publiko.
2. Plazen esleipena argitaratzen den unetik, ikasleek 15 izango dituzte esleitu zaien unibertsitatea onartzeko, ukatzeko edota aldaketa eskatzeko.
3. Ikasleak galdu egingo du mugikortasun-programan parte hartzeko eskubidea baldin eta esleitutako plaza onartu ondoren, uko egiten badio, behar bezala justifikatu gabe, edo ez bada harrera-unibertsitatean azaltzen aurreikusitako epean.
4. Ikasleak ez badauka gaindituta eskatutako gutxieneko kreditu-kopurua, galdu egingo du esleitutako plaza.

5. artikulua Hitzarmen akademikoa

1. Behin plaza onartutakoan, ikasleak harrera-unibertsitatean egin beharreko ikasketen proposamena prestatu beharko du, BAMEko mugikortasun-koordinatzaileari aurkezteko hitzordua adostutakoan.
2. Ikasketa-proposamena onartutakoan, *Ikasketen balioa onartzeko aurretiko konpromisoa* izeneko dokumentua izenpetu beharko dute ikasleak eta erakunde akademiko biek, bertan adieraziz zein ikasgaitan matrikulatu behar den BAMen eta zeinetan harrera-unibertsitatean.
3. Adostutako matrikulan aldaketarik egin nahi izatekotan, lehenik, BAMEko mugikortasun-programen koordinatzaileak eman beharko du oniritzia. Aldaketa-eskaerak ikaslea harrera-unibertsitateara heldu eta 15 eguneko epean bidali beharko dira.
4. Aipatutako oniritzia jaso ez duten ikasgaiei ez zaie baliorik aitortuko.

6. artikulua Arau akademiko espezifikoak

1. Ikasleak harrera-unibertsitatearen egutegira eta hango araudira egokitu beharko dira.
2. Baldin eta ikasleak ikasgairik balu gainditu gabe aurreko ikasturtetik eta ezingo balitz ezohiko deialdira aurkeztu,
 - ✓ Ikasleak idatziz jakinarazi beharko dio BAMEko mugikortasun-koordinatzaileari, gutxienez, harrera-unibertsitateara abiatu baino hilabete lehenago.
 - ✓ BAMEko mugikortasun-programen koordinatzaileak ezohiko ebaluaziorako proposamena adostuko du ikasgaiko irakaslearekin.
 - ✓ Posible izatekotan, harrera-unibertsitatean egin ahal izango da azterketa edo bestelako probaren bat.
 - ✓ Posible da Eskolako azterketa-egutegitik kanpo jartzea ebaluazio-data; kasu horretan, lortutako kalifikazioa ohiko deialdirako gordeko da, eta ezin izango da erabili, ofizialki, aipatutako deialdiko emaitzak argitaratu arte.
3. Ikasleak gainditu egin beharko ditu harrera-unibertsitatean ikasketa-hitzarmenean jasotako ikasgai guztiak.
4. Kalifikazioak bide ofizialetik helaraziko dizkio harrera-unibertsitateak BAMi ikasketa-espeditentean adostutako errekonozimenduak bidera ditzan.
5. Kalifikazio-sistemak aldatu egiten direnez unibertsitatetik unibertsitateara, ikasleari jakinarazi egingo zaio zein irizpide erabiliko diren kalifikazioak bihurtzeko, Deustuko Unibertsitateak onartutako kalifikazio-konbertsiorako taularen arabera.
6. Ohiko deialdiaren ostean, ikasgairen bat gainditu gabe geldituko balitz, ikasleak harrera-unibertsitatean bertan egin beharko luke azterketa bigarren deialdian.
7. Harrera-unibertsitatean deialdi biak agortuta, ikasgairen bat gainditu gabe geldituko balitz harrera-unibertsitatean, ikasleak ikasgai baliokidea (eta eskola-ordu kopuru baliokidea ECTS kredituetan) egin beharko du BAMen hirugarren deialdian. Aurreko deialdi biak ez gainditu bezala edo ez aurkeztu bezala, hala balegokio, agertuko dira ikaslearen ikasketa-espeditentean.
8. Harrera-unibertsitateko araudiak ebaluatzeko deialdi bakarra izango dela jasoko balu, errespetatu egingo da ebazpen hori.

7. artikulua Ikasketen balioa onartzeko prozedura eta akta ofizialak betetzea

1. BAMEko idazkari akademikoak onartuko du egindako ikasketen balioa eta akta ofizialak beteko ditu, beharrezko dokumentazioa harrera-unibertsitatetik jaso eta hamabost eguneko epean, eta posible bada, gutxienez hurrengo ikasturteko matrikula ofizialerako data baino hamabosta lehenago.
2. Kredituak onartzeko ikasleak zera egin beharko du:

- ✓ BAMEko mugikortasun-programen koordinatzaileari hitzordua eskatu, mezu elektronikoa bidalita egonaldia amaitu baino astebete lehenago.
- ✓ Adostutako hitzordura honako dokumentazioa eraman:
 - Jasotako kalifikazioen kopia
 - Izenpetutako hitzarmen akademikoaren kopia
 - Ikasgaiak aldatzeko egindako eskaeren kopia (horrelakorik izatekotan), eta aldaketak egiteko onarpenaren kopia (onartu izan balira)
 - Egonaldiaren memoria, webgunean eskura daitekeen inprimakiaren arabera.

8. artikulua Diziiplina-araubidea

1. Ikasle batengan desegokiak diren jokabideak antzemanaz gero, Deustuko Unibertsitateko araudiko ¹ IV tituluak ('Diziiplina-araubidea') jasotzen duena aplikatuko da, xede-unibertsitateak ezartzen duenarekiko independenteki.

9. artikulua Araudi hau aldatzea

1. Araudi hau aldatu egin ahal izango da, BAMEko mugikortasun-programen koordinatzaileak horrela proposatuta, edota Batzorde Akademikoaren zein Zuzendaritza Taldearen ekimenez.

¹ Errektorearen uztailaren 24ko 11/2015 agindua, ezagutzera ematen duena Deustuko Unibertsitateko Ikasleen Araudia, Unibertsitate honetako Zuzendaritza Kontseiluak 2015eko uztailaren 23an onartutakoaren arabera.

Xedapen gehigarria – Ezohiko egoerak

1. Aurreko artikuluetan jaso ez diren ezohiko egoerak BAMEko mugikortasun-programen koordinatzaileak ebatziko ditu, eta azken buruan, BAMEko idazkari akademikoak.

Xedapen indargabetzailea

1. Araudi honen aurrekoak indargabe geratzen dira, honakoa indarrean sartzen den unetik aurrera.

Azken xedapena – Araudi hau indarrean sartzea

1. Araudi hau 2018ko irailaren 24an sartuko da indarrean.

1. ERANSKINA

BEGOÑAKO ANDRA MARI IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAKO HAUR- HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUETAKO IOBP-KO IKASLEEN MUGIKORTASUN-PROGRAMEI BURUZKO ARAUDIA EZAGUTZEN ETA ONARTZEN DELA ADIERAZTEN DUEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IZEN-ABIZENAK

NORTASUN-AGIRIA

ADIERAZTEN DUT

Osorik irakurri dudala dokumentua eta bertan deskribatzen diren baldintzak onartzen ditudala.

IZENPEA

DATA
